

3. Konpromiso Taldearen 5. bilera

2019ko apirilaren 3a

.....

Bileraren helburua

iLab-aren kontzeptualizazioaren edukia aurkeztea eta behin betiko kontzeptualizaziorako iritzia eta doikuntza-proposamenak jasotzea, proiektu pilotuen inguruko aurrerapenak ezagutaraztearekin batera.

Parte-hartzaileak

Joseba Muxika, Koldobike Uriarte, Goizalde Atxutegi, Nerea Ollokiegi, Itziar Solozabal, Aitzol Batiz, Danel Alberdi, Antxon Gallego, Jon Abril, Itziar Calvo, Miren Arbelaiz, Beatriz Acha, Maitane Leizaola, Irune Prieto.

Gai-zerrenda

iLab-aren kontzeptualizazioaren aurkezpena

Ane Abarrategik (TIPI) iLab-aren kontzeptualizazio-dokumentuaren behin-behineko bertsioa aurkeztu du, ColaBoraBorak egindakoa.

Puntu hauek biltzen ditu aurkezpenak:

1. iLab-aren definizioa
2. Helburuak
3. Printzipioak
4. Sareko komunitatea: sarearen elementu komunak, agente motak, inplikazio-mailak, nodoek harremanak egiteko moduak, nodo motak, kudeaketa-egitura.
5. Baliabideak
6. Zerbitzuak: prospekzioa, esperimentazioa, bidelaguntza, transferentzia.

Banakako balorazioa

iLab-aren kontzeptualizazio-proposamena jasotzen duten lau taularen gainean, egoki ikusten dituen, ezegoki ikusten dituen eta zalantzak eragiten dizkion kontuak markatu ditu parte-hartzaile bakoitzak.

Kontuak ematea

3. Konpromiso Taldeak aurreko lau bileretan egindako ekarpenak eta horien ikuspegiak kontzeptualizazio-proposamenean nola sartu diren azaldu du Ricardo Antónnek (ColaBoraBora). Mapaketa-lanaren ondoriozko transferentziak nola egin diren ere azaldu du.

Balorazioa bateratzea

Aurretik egindako banakako balorazioa irakurri du Ane Abarrategik (TIPI). Taldekide batzuek azalpenak eta ekarpenak egin dizkiote irakurketa horri, eta, horrela, proposamenaren inguruko lehenengo adostasunak eta desadostasunak jarri dira mahai gainean.

Doiketa kolektiboak

Kontzeptualizazio-proposamena sakon aztertzea eta horren inguruko iritzia erregistratzea da xedea; halaber, doiketa-proposamen zehatzak egiteko aukera eman da, dokumentuan jasotzen denarekin desadostasuna dagoen alderdietan.

Horretarako, lau mahaitan banatu da taldea, eta proposatu diren aldaketak erregistratzeko fitxa batean egin dute lan. Xedea ez da izan ados jartzea, baizik eta ahalik eta ekarpen eta ikuspegi gehien biltzea, iLab-aren behin betiko kontzeptualizazioa elikatuko baitute.

Planteatu diren doiketak [dokumentu honen "Akta" atalean](#) daude.

Bateratze-lana

Bere mahaietan doitu dituzten edukiak eta aldaketak proposatzeko arrazoiak azaldu ditu talde bakoitzeko kide batek.

Pilotajea

Proiektu pilotuak abiarazteko lan-plana aurkeztu du Koldobike Uriartek (Eusko Jaurlaritza). Era berean, proiektuak atzemateko eta pilotajearen irizpideak alderatzeko diseinatu den galdetegia aurkeztu du, eta galdetegiaren gainean ekarpenak eta aldaketak egiteko gonbidapena egin zaio taldeari.

Amaiera

3. Konpromiso Taldearen lan-prozesuaren hurrengo urratsak eta jomugak gogoraraziz amaitu da bilera.

Akta

Doiketa kolektiboak

Taldeetan jasotako informazioaren laburpena jasotzen da hemen, kontzeptualizazio-dokumentuan proposatzen den egituraren arabera antolatuta. Ekarpenetan, *oharrak* eta doikuntza-proposamen zehatzak bereizten dira; lehenengoetan, iruzkin orokorrak edo ideia gaineratuak jasotzen dira, eta, bigarrenetan, aldaketa espezifiko eta zehatzak biltzen dira.

1/ Oinarriak

1.1/ Definizioa

- Kontuz berrikuntza prozesuen diseinuarekin bakarrik lotzearekin, erronkak eta emaitzak kanpoan utzita.
- Hizkuntza soildu behar da.
- Eslogan edo lelo erakargarri bat aukeratu beharko litzateke.
- Definizioari honako hau gaineratzea proposatu da: «gaur egungo egiteko moduak aztertzen ditu, eta horien gainean berrikuntzak egiten».

1.2/ Helburuak

Prospekzioa

- Gertatzen ari dena zaintzeko antena eta radarra izatea dakar prospekzioak, agertokiak eratu eta, horrela, prospektiba egin ahal izateko.
- Gaien (zer) eta moduen (nola) prospektiba egitea.

Bidelaguntza

- Antolakundearen oinarritzko elementu utziezinei (araua, estrategia...) uko eginarazi gabe egingo da. Norbaiten zerbitzura egon behar du, eta ez nor hori ordezkatu, bere errealitatera egokituta.
- Bidelaguntzaren intentsitatearen gaineko zalantzak daude: motibatzea, gauzak gertaraztea, orientatzea.
- Izenburuari dagokionez, hitza proposatu da, edo dagoena erraztea.
- Soiltzea proposatu da, eta «transferentzia» kontzeptuarekin lotzea bidelaguntza eta transferentzia, aurreko eta ondorengo ezagutzaren transferentziatzat hartuta hori.

Transferentzia

- Saretik harago sortu behar dira ezagutza eta sozializazioa.

Esperimentazioa

- «Kooperazio» hitza kentzea eta «lankidetz» jartzea proposatu da. Lankidetz, interesak bateragarri eginez herritarren, adituen, intereseko taldeen eta erakundeetako taldeen artean; betiere, erabakia dagokionaren eskuduntzak eta eskumenak errespetatuta (Demokraziaren Liburu Zurian bezala).

2/ Printzipioak

- «Esklusibotasunik eza» ideia gaineratzea punturen batean, iLab-ean ez egoteak ez duelako esan nahi parte-hartzean berrikuntzarik egin ezin daitekeenik.

Zorroztasuna:

- Zorroztasun hitzak kortsea dakar gogora. Profesionaltasun hitzarekin ordezkatzeari proposatu da.

Arriskua:

- Ausardia hitzarekin ordezkatzeari proposatu da, eta «arrisku kontrolatua» ñabardura gehitzea.

Malgutasuna, iragazkortasuna eta egokitzapena

- «testuinguru bakoitzari» gaineratzea izenburuaren amaieran.
- Balioa sortzeaz eta oxigenatzeaz hitz egitea, eta ez ordezkatzeari edo iraugitzeaz; dauden ekimenak errespetatzea.

3/ Sareko komunitatea

3.1/ Nor dago bertan

3.1.1/ ELEMENTU KOMUNAK

Printzipio batzuk eta ezaugarriak sortzeko modua partekatzea:

- Funtsezkoan izan behar du, ito gabe eta zorrotasunik gabe, errealiterako egokituta.
- Gutxieneko batzuk zehaztu behar dira.

3.1.2/ AGENTEEN TIPOLOGIA

- Tipologiak ondo zehaztuta daude, baina ez da bakoitzaren zereginen esleipena aldatzea proposatu. Aditz bat esleitzea agenteen tipologia bakoitzari; 3. bileraren aktan jasotako aditz horiek.
- Agenteen tipologiak baino, agenteen ezaugarri komunak eta bereizgarriak zehaztea.

Erakundeetakoak

- Eransten duten expertise-a edo ezagutza aditua gaineratzea, baita baliabideak ere.

Tartekoak:

- Jatorria eta eremua gaineratzea: eremu akademikoa, zentro teknologikoak, hornitzaile pribatuak...
- Tartekoak hitzak zalantzak eragin ditu: enpresa, akademia...

3.1.3/ INPLIKAZIO-MAILAK

- Une oro konbinatzeko gai izan behar dute, agente mota ezberdinek askotariko inplikazio-mailak izan baititzakete.
- Ez da argi geratu agente eragileen eta aktiboen arteko aldea.

Aktiboak:

- Harreman-zirkuituak kontuan izan behar ditu inplikazio-mailak, nodo motak eta agente mota; izan ere, adibidez, nodo koordinatzailean ez luke zentzurik edukiko «maila latentea» duten agenteak egoteak. Kategoriak triangelatu behar dira.

Latenteak:

- Kategoria honetakoak ez diren agenteak gaineratu, ikaskuntzak guztiontzat baitira, nodoa izan ez arren.

3.1.4/ ATXIKITZEKO MODUA

Abalak:

- Ez da beharrezkotzat jotzen abalak eskatzea, abal motaren arabera estigma sortzen baita.
- Sartuko den agenteak sarean izango duen rolari lotutako proba edo ebidentzia motaren batek egon behar ote duen galdetu da.
- Sareko komunitateak agentea onartu behar izateko betekizuna gaineratzea, aurretik gutxieneko eskakizunak betetzen baditu.
- Gobernamendu-eredua zehaztuta, hobeto zehaztu ahalko da atxikitze modua.

3.2 Sarea, harremanak eta nodoak

3.2.2/ HARREMANAK

- Harreman guztiek izan beharko lukete posible, balioa sortzen bada, ikasteko eta ezagutza transferitzeko konpromisoa badago eta komunitatearen konpromisoari eta etikari iskin egiten ez bazaie.
- Harremanak soilteza erabaki da: alde-bikoak edo aldeaniztunak izatea.
- Zalantzak daude nodoek elkar ezagutzen dutela bermatzeko moduaren eta alde-biko harremanak gerta daitezzen nodo bakoitzarekin egin beharrekoaren inguruan. Baita alde-biko konexioek balioa sortzen duten jakiteko moduaren inguruan ere.

3.2.3/ NODOAK

- Definizio soilagoa proposatzen da, honelako zerbait: «maila ezberdinetan inplikatzeko diren agente instituzionalen, tartekoen eta sozialen sarea: topera, tarteka edo unean-uneko kontuetara ibil daitezke».
- Nodo mota guztien eraketa zehaztu beharko litzateke.

Koordinazio-nodoa

- Gobernamendu-eredua definitzen denean, atxikimenduak zein baldintzatan onartzen diren zehaztuko da, bai eta urraketak egiteagatik noiz uzten zaion nodoa izateari ere.

- Errotazio-sistema argitu behar da, eta OGParen ebaluazioarekin eta xedeekin lerrokatu behar dira nodoaren eginkizunak.
- Garrantzitsua da azpimarratzea koordinatuz bermatzen direla prospekzioa, transferentzia eta bidelaguntza; hau da, aktibatuz, konektatuz, jarraipena eginez eta ebaluatuz.

Esperimentazio-nodoa

- iLab-eko gainerako kideei kontu nola emango dien zehaztea falta da.

Lurralde-nodoak

- Kentzea proposatu da, lurraldetasun-jarrerak saiheste aldera, gaizki-ulertuak eragin baititzakete. Lurralde-nodoak esperimentazio-nodoak izango lirateke, dauden tokian daudela.

3.2.4/ iLAB-AREN ANTOLAKETA

- Baldintzei «Xedeak, ikuspegia, misioa... partekatzea» gaineratzea proposatu da.

Honek guztiak legearekin bat egiteko administrazio-doikuntza egokia

- Baldintza honetan, amaieran «eta bere estrategia zehaztuak eta eskumenak» gaineratzea proposatu da.

4/ Baliabideak

4.1 Toki fisikoa

- Daudenak erabiltzea sustatzeko, kide guztiek beren toki fisikoak iLab-aren eskura utziko dituztela gaineratu behar da.

5/ Zerbitzuak

5.1 Prospekzioa

Nazioarteko sareetan edo dinamiketan parte hartzea

- «Berrikuntzarekin lotuta» gaineratu behar da izenburuan.

Euskadiko berrikuntzaren mapa, parte-hartzeari dagokionez

- Zerbitzu honek zalantzak eragin ditu. Balioa dauka berritzen nor ari den jakiteak? Herritarren parte-hartzearen inguruan berritzeak zer esan nahi duen zehaztuko duen check list batekin ordezkatzeko aukera ikusi da. Zer da berrikuntza herritarren parte-hartzean? Nork erabakitzen du?

5.2. Esperimentazioa

- Puntu hau oso interesgarria da.

Esperimentazio-proiektu estrategikoak garatzea:

- Estrategiko hitza kentzea proposatu da.

Proiektuen deialdi irekia:

- Ideia gisa, interesgarria izan liteke erantzuteko erronka edo arazo bat proposatzea, edo herritarren parte-hartzean berritzeko metodologiak eta moduak proposatzea, probatzeko.

5.3 Bidelaguntza

- Izenburuan «eta transferentzia» gaineratzea proposatu da, bi puntuak lotzeari begira.
- Konektatzean jarri beharko litzateke gehiago fokua.

Bitartekaritza-programa

- Proposamenak zalantzak eragin ditu.

Trebakuntza espezializatua:

- Open Eskolarekin lotzea proposatu da.

5.4 Transferentzia

- Oso garrantzitsutzat jotzen da, honengatik baita iLab-a sarea.
- Nodoak ebaluatze aldera inpaktuaren neurketa gaineratzea proposatu da.

* / Ohar orokorrak

- Berrikuntza zein itemek definitzen duten zehaztu beharko litzateke: baldintzak eta irizpideak.
- Gero, item horiek pilotajearen berresten diren ala ez ikusi beharko litzateke.
- Dagoeneko badena ikusarazi behar da.